ORFEÓN DONOSTIARRA

EUSKERAZ-ere eman bear zaizka izen onekin leku guztiyetan ezagutua arki dan Kantaritalde Donostiarra-ri, irabaziyak dauzkan porezmen atsegingarriyen, biyotzetikako sari ordañ edo aipamenak.

Euskeraz biyotza mintzatzen zaigunok, ziñetan esan bear badegu berari deritzona, ta ez degu ukean baztartu bear egi zabalkoya eskutaturik illunpean betiko, baizik, eman argimen osoa, gure mendi, chara, soro ta baratza guztiyetan lanean sayatzen diran ayen eskuetara irichi ditezen, Madrill-tik izan ditugun albista atsegingarriyai.

Badakit askok esango dutela nigatik, gizon aztaputz orrek, ¿zertarako sartu bear zuben eginkisun ontan, ezpaldin badaki bere luma sakarrari bear diña egokitasun ematen? ¿Eta nork ontzat artuko ditu onek esaten dituben utzkeriyak? Oek guztiyak orla izango dira, bañan gizon jakinduriz motza dan batek egiten duben lan borondatezkuak ¿ez aldu ezer baliyo? ¿Obe alda jakinduriya izan ta, sua auzpean bezela gordetzia, non daguen ere iñork ez jakiteko? Ager bedi sua, gar bizi biziyakin zabal ditzan chinpartak, kaltegarriya bada itzaltzen saya gaitezen kaltia letorkiyonaren mesederako; bañan su orrek mesedezko izaerak badauzka, eman indarra zabal dediñ, dauzkan mesedeak garai onez jaso ditzagun.

Au da bada nik gure izkuntz ederrean egin nai detana naiz guztiyen gogokua ez izan.

Erdal izperrak irakurri ditugu, ta oetan agertzen diran goremen aundiyak Donostiar kantaritaldeaganuntzakuak, biyotza chit mogikor ipiñi dirate, non pozaren gayak ager arazi nai dizkidan borondate aundiyaren bitartez, bañan ontarako artu bear ditut gaitzat Madrill-ko izper batzuek esaten digutena.

Ara zer diyoten *El Liberal* eta beste batzuek, 1912-ko Urrilla-ren 27-ko igandean argitaratu ziranak.

Lenengo jai aldi bart arratsekua, *Asociación Wagneriana-k* moldapetua izan zan elkartuentzat bakar bakarrik donkidatua; jaitze eder gaiñ gañekua gertatu zan ziñetan, eta oraindik Madrillen izan eztan bezelakua.

Mancinelli, Orquesta Sinfónica, Orfeón Donostiarra, ta amabi kantalari gaiñ gañekuak pildu ditu batera *Asociación Wagneriana-k Teatro Lírico-ko* iruditegian.

Bart arratsean aditu genduen *Parsifal* chit egoki ta bikaintasun aundiz *Orquesta Sinfónica* ta *Orfeón Donostiarra-k* ekindua, aiñ arrigarriro, non, aditzen geunden guztiyak sumindu genituben eskuak chalo jotzez eziñ azperturik. Ez da beñere orlako jai aldirik izandu Madrillen, au diyote *El Liberal, El Imparcial, A B C, La Correspondencia* ta beste izper Madrill-ko gañuntzekuak; baita ere esaten digute, ez dirala beñere aiñ egoki eta aunditasun geyaguan ekindu izandu *La consagración de Gral, Jardin encantado* ta *La escena de las flores,* oek guztiyak zailtasun aundiz beteak, bañan guztiz arrigarriro ekindatuak, mutiko, neskak eta orkestaren aldetik.

Ondorengo egunetako ekiñ aldiyak ere chit bikañak izan dirala diyote, len aipatu ditutan izperrak; eta albiste on oen berri jakiñik, ¿nola ez mogitu biyotza bati? Neri biñipiñ mogiera aundiya eragiñ dirate barrun erapeko sāmurrean, albiste atsegingarri oriyek.

Donostiyako kantaritalde ederrean arki diran gizaseme ta aurrak, Ama Euskeraren bularreko irañ gozo gozua edozkirik aziyak dira, ta beraren indarra bitarteko dala aunditasun osora mallatik mallara tontor, tontorreraño igua.

¿Nola bada utziko nuben erdaldunen kandik orrenbesteraño goitalchatua izan dan Donostiar kantaritaldea, euskeraz pallaku sāmur bat egiñ gabe?

Eta, ¿nola utziko det Sekundino Esnaola jauna, maisutasun aundizko malletakotzat ezagungarritua izan bada, Royan, Paris, Bartzelona, Bilboon eta oraingo joan aldiyan Madrillen, maisurik jakintsuenekoen artetik, esaten dutelarik gañera, chinistu eziñ liteken diñakua badala?

Oek orla diyotenian, ¿ez alda bada izango? Nere irítziya urri, ezereza baldiñ bada ere, egi billos au chinistu gabe ez naiz geldituko, ta nere biyotzak ezkeintzen diyon pallakuzko bezarkada, beretzat eta bere talde ederrarentzat izan bedi luzarorako.



SECUNDINO ESNAOLA

Eta ¿ez alditut aipatu bear banakako kantari eder, errechiñola beziñ gosuak diran Remigio Peña ta Karmen Florez?

¿Ez aldute bada oek errenkada beresi bat merezi, beren ekiñ aldi gaiñ gañekoagatik? Nik ditudan gayak amur ematen badute, esango det beti esan oi izan deguna itz guchitan; guztiz yayuak dirala kantaritzako gai neurketa guztiyetan eta *Teatro Lírico-n* aditu zituzten chalo ugari atsegingarri ayen apaingarritzat, nere baliyo guchiko oen otsa, adi dezatela; bada nik au baño geyago ez nezayoteke ezkeñi.

Zorionak bada luzarorako opa dizkat Kantaritalde Donostiarra-ri ta bere zuzendari zintzo Esnaola jaunari.

JUAN IGNACIO URANGA



Donostiar kantaritaldearen echeko gela nagusiya.